

GIZARTE ONGIZATEKO AHOHKULARITZA KONTSEILUAREN ARAUDIA

=====

ARRAZOIEN AZALPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuak arautzen dituen 5/1996 Legeak, administrazio-jardunbidearen printzipio zuzentzaile gisa, bideak ezartzen ditu hiritarrek gizarte-zerbitzuetan parte har dezaten. Legeak Gizarte Ongizateko Udal Kontseiluak sortzea aurreikusten du, gizarte-zerbitzuen planifikazio, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko aholkuak emateko eta, aldi berean, eztabaidaren eta erakunde eskudunei eginiko proposamenen bidez, gizarte-zerbitzuak antolatzen laguntzeko.

Toki-erakundeei buruzko legediak, halaber, aholkuak eman eta proposamenak egiteko eskumena izango duten arloko aholkularitza-kontseiluak sortzeko aukera aurreikusten du, hiritarren partaidetza bideratzeko.

Horiek horrela, Ordiziako Udalak beharrezkotzat jo du araudi honek arautuko duen Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseilu berria sortzea.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Definizioa.

Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseilua Ordiziako Udaleko hiritarren eta elkarten kontsultarako eta parte-hartzeko organoa da, Gizarte Ongizatearekin zerikusia duten udal jardunaren ildoak erabakitzeko.

2. artikulua. Helburuak.

Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseiluak helburu hauek ditu:

- Aholku organoa den aldetik, gizarte ongizateko gaietan udalaren politika orientatzea
- Ordiziako gizarte egoera aztertzea
- Gizarte Ongizateko udalaren politikaren jardun-ildoak proposatzea.
- Gizarte politiken eraginak aztertzea.
- Ordiziako gizarte ongizateko politikaren barruan dauden neurriak, programak eta jarduerak abian jartzen laguntzea.

3. artikulua. Kontseiluaren funtzioak.

- a) Gizarte ongizateko udal zerbitzuak eta programak aztertzea eta ebaluatzea.
- b) Gizarte Ongizateko Ordezkaritzari proposamenak aurkeztea, zerbitzuak ezartzeko edo daudenak hobetzeko.
- c) Udalerriaren egoera aztertzea gizarte ongizatearen esparruan.

- d) Garatutako aktibitatea eta proiektuen jarraipena egitea.
- e) Gizarte ongizatearen eremuan jarduteko politikaren helburu orokorrak eta espezifikoak ezar-tzen eta erabakitzen laguntzea.
- f) Gizarte Ongizateko Ordezkaritzari proposamenak aurkeztea, programak diseinatzeko eta aurrekontuak prestatzeko.
- g) Esku hartu beharreko arloari dagozkion aurrekontu ildoak ezagutzea eta, orobat, aholkuak ematea dagozkion arloan jarduteko proposamenei buruz.

4. artikulua. Jardun-eremuak.

Hauek dira Kontseiluaren jardun-eremuak:

- a) Gizarte Ongizatea sustatzea eta hobetzea 65 urtetik gorako herritarren artean, beharrezkoak diren gizarte zerbitzuetako jardueren eta prestazioen bidez.
- b) Neurriak garatu, emakumeak biztanleria aktiboan eta gizarte-bizitzaren esparru guztietan txertatzeko, gutxiago baztertu eta gehiago bateratuko duen gizarte batean.
- c) Ingurumenarekiko eragina eta eragin horrek Gizarte Ongizatearekin eta bereziki garapen ekonomikoarekin duen lotura aztertzea.
- d) Jarduerak pobrezia gaindituko duen politika baterantz bideratzea.
- e) Prebentzio sozio-sanitarioko politikak sustatu nahi dituzten jardun-eremu guztien koordinazioa bultzatzea.
- f) Udal Patronatuek edo Fundazio, Batzorde eta Erakundeek egindako proposamen sektorialak bideratzea eta laguntzea, baldin eta proposamen horien helburua, besteak beste, herritarren parte-hartzea, minusbaliatu fisiko eta psikikoen eta menpeko pertsonen arreta, heziketa, gazteria eta kirola bada.
- g) Udalerrri osoan herritarren jarduera boluntarioak sustatzea eta laguntzea, eta boluntarioritza bultzatzea.
- h) Immigrazioa.
- i) Udaleko gizarte ongizateak eta aholku batzordeak beharrezko jotzen dituzten beste batzuk, asanbladaren aurretiazko akordioarekin.

II. KAPITULUA:

GIZARTE ONGIZATEKO AHOHKULARITZA KONTSEILUAREN OSAERA

5. artikulua. Osaera.

Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseiluak kide hauek izango ditu:

a) Lehendakaria: Alkatea izango da Aholkularitza Kontseiluko lehendakaria; alabaina, edozein zinegotziren esku utz dezake lehendakaritza.

b) Lehendakariordea: Gizarte Ongizateko zinegotzi titularra izango da. Eta lehendakariak bezala, edozein zinegotziren esku utz dezake bere kargua. Aipatutako ordezkapena alde batera utzita, lehendakariordeak lehendakaria ordezkatzeko du, azken horren kargua hutsik dagoenean, ez dagoenean edo gaixo dagoenean.

c) Zinegotziak diren kideak: Udalean ordezkaritza duen alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat, alkatearena eta lehendakariordearena kenduta.

d) Zinegotziak ez diren kideak, banaketa honen arabera:

- Ordezkari bat, Ordizian, 4. artikuluko jardun-eremuetako batean jardutea helburu duen erakunde edo elkarte bakoitzeko.
- Kontseiluaren onespena duten eta gizarte ongizateko gaiekin zerikusia duten beste instituzio edo erakundeetako 5 ordezkari gehienez ere.

e) Idazkaria: Aholkularitzako Kontseiluko idazkari izango da udalbatzako idazkaria edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsona. Idazkariak, Lehendakariaren ikuskaritzapean, laguntza eta aholkuak emango dizkio Aholkularitza Kontseiluari.

f) Lehendakariak, Lehendakariordeak edo edozein kidek hala proposatuz gero, Kontseiluko bileretan parte hartu ahal izango dute, kontseiluko kideak izan ez arren, hitzarekin baina botorik gabe, Gizarte Ongizateko udal teknikariek eta, besteak beste, gizarte gaietan eta herritarren parte-hartze prozesuetan adituak diren pertsona ospetsuek.

6. artikulua. Kontseiluko kideen izendapena eta kargu-uztea.

1. Aholkularitza Kontseiluko kideak Alkateak izendatuko ditu. Izendapenak horrela proposatuko dira:

a) Alderdi politikoaren ordezkariak, alderdi horiek proposatuta.

b) Gainerako kideak, ordezkatzeko erakundearen ordezkari-organismoak proposatuta. Kontseiluan ordezkariak izendatzeko, elkarteek inskribatuta egon beharko dute dagokien Elkartearen Erregistro Orokorrean eta Irabazi Asmorik Gabeko Udal Intereseko Elkartearen Erregistroan.

2. Kideek aldeez aurretik onartu beharko dute haien izendapena.
3. Aholkularitza Kontseiluko kideen agintaldiaren iraupena bat etorriko da izendatuak izan ziren agintaldiarekin. Dena den, ondoko arrazoiengatik kargua utzi beharko dute:
 - a) Kide izateari uko egiteagatik.
 - b) Epai irmo baten bidez kargu publiko bat betetzeko ezintasuna edo ezgaitasuna aitortzen denean.
 - c) Haien karguagatik kontseiluko kide diren pertsonak kargua uzten dutenean, kontseilua ere utzi beharko dute.
 - d) Proposatu duen erakundeak kargugabetu duelako edo hautatu zuen elkarteak utzi duelako.
 - e) Araudi honetan adierazitako funtzioak behin eta berriz ez betetzeagatik.
5. Kontseiluko plaza hutsak izendapenerako ezarri den modu berean beteko dira.

III. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDU ERREGIMENA

7. artikulua. Funtzionamendua.

Kontseilua urtean lautan bilduko da gutxienez.

Lehendakariari dagokio deialdia egitea, eta deialdia bilera-egunaren zazpi lanegun aurretik egin beharko da. Epe berean bidaliko zaie kideei jorratu beharreko gaiei buruzko behar adina informazio.

Lehendakariak Kontseilua deitu beharko du Kontseiluko kideen erdiak hala eskatzen badu.

Batzarrek, deliberazioek eta erabakiek balioa izan dezaten, beharrezkoa izango da Lehendakaria eta Idazkaria edo haiek ordezkatzeko dituzten pertsonak eta, gutxienez, kontseiluko kideen erdia egotea.

Lehenengo deialdiaren ondoren bigarren deialdian osatutako organoak balioa izango du, baldin eta Lehendakaria eta Idazkaria bertan badaude.

8. artikulua. Deliberazioak.

Kontseiluko Lehendakariak batzarrak zuzendu, eztabaidak antolatu eta bilerak ondo egiten direla bermatzeko komenigarriak diren neurriak hartuko ditu.

Halaber, Lehendakariak Aholkularitza Kontseiluaren eta udal organoen arteko harremanak koordinatuko ditu.

9. artikulua. Lan-batzordeak.

1. Lan-batzordeak osatu ahal izango dira Gizarte Ongizateko gai zehatzak jorratzeko edo Kontseiluaren gehiengoak beharrezkotzat jotzen duenean.
2. Lan-batzordeen osaera, izena eta funtzionamendua Kontseiluak erabakiko du.
3. Lehendakariak beharrezkotzat eta egokitzen jotzen duen laguntza teknikoa eskatuko du udalean bertan edo udaletik kanpo.
4. Lan-batzordeek jorratutako gaien berri emango diote Kontseiluari.

10. artikulua. Erabakiak hartzea.

1. Aholkularitza Kontseiluaren erabakiak bildutako kideen gehiengo soilaren bidez hartuko dira. Berdinketa egonez gero, Lehendakariak kalitate botoa emango du. Nolanahi ere, boto partikularrak har daitezke eta ados ez dauden alderdien iritzia agerrarazi.
2. Hartzen diren erabakiak akta batean jasoko ditu idazkariak, eta hartutako erabakiak edo egindako txostenak Gizarte Ongizateko Ordezkaritzara bidaliko dira.
3. Aholkularitza Kontseiluaren erabakiak, proposamenak edo txostenak ez dira izango lotesleak ez Gizarte Ongizateko Ordezkaritzarentzat ez beste edozein Udal organorentzat. Dena den, kontuan izan beharko ditu organo eskudunak bere erabakiak hartzerakoan.

11. artikulua. Funtzionamenduko barne-arauak.

Aholkularitza Kontseiluak, Araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik, bere funtzionamenduko barne-arauak ezar ditzake, eta barneko lantaldeak eratu.

12. artikulua. Tokia eta Aktak.

Aholkularitza Kontseiluaren batzarrak udalaren bulegoetan egingo dira. Batzar bakoitzean akta egingo du idazkariak. Hamabost asteguneko epean kontseiluko kideei bidaliko zaie eta hurrengo batzarrean onestea edo ez erabakiko dute.

13. artikulua. Bitartekoak.

Aholkularitza Kontseilua Gizarte Ongizateaz arduratzen den udal sailari atxikiko zaio, eta sail horrek bere funtzionamendurako behar dituen bitartekoak eskainiko dizkio.

III. KAPITULUA. AHOIKULARITZA KONTSEILUA DESEGITEA.

14. artikulua. Aholkularitza Kontseilua desegitea.

Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseilua desegitea Udaltzari dagokio. Kontseilua desegiteko erabakia legeak ezarritako moduan jakinaraziko da.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

1. Araudi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hogeitaz asteguneko epean, seigarren artikuluan adierazitako elkarteek eta pertsonak, nahi izanez gero, Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseiluan parte-hartzea eska dezakete. Alkateak eskaera horiei erantzun eta onartutako pertsonak deituko ditu Kontseilua eratzeke egingo den bilerara.
2. Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseilua formalki eratuta geratuko da horretarako deituko den bileraren bidez.
3. Kontseilua osatu ondoren, bertan parte hartu ahal izango dute Araudi honetan xedatutakoa betetzen duten elkarteek.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan espresuki aurreikusitako ez denari dagokionez, Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseiluaren funtzionamendua eta jarduna Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. kapituluko II. tituluan xedatutakoaren araberrakoz izango dira. Gainerako xedapenetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudian (2568/1986 Errege Dekretua) ezarritakoa bete beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean egongo da hamabost asteguneko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunetik kontatzen hasita.

ALKATEA,

Behin behineko IDAZKARIA,